

EROSKI-K ABIAN JARRIKO DU 'ROJO CON ROSA', ENPRESA LIDERGOAREN ERRONKA HANDIEZ GOGOETATZEKO BIDEPODCAST BERRIA

- **EROSKIko CEO Rosa Carabelek gidatuko du espazio berria, eta enpresa arloko lider nabarmenekin bilduko da esperientziak partekatzeko eta enpresaren, ekonomiaren eta gizartearen erronka nagusiak aztertzeko**
- **Lehen atalean, Jose Armando Tellado izango da, Central Lechera Asturiana taldeko zuzendari nagusia, eta, aurki, Iberdrolako, Vicky Foodseko eta Eguren upategietako ordezkariak igaroko dira bidepodcastetik.**

Elorrio, 2026ko uztailaren 28a.– [EROSKI](#)k abian jarriko du **Rojo con Rosa** bideopodcast berria, bere CEO Rosa Carabelek gidatua. Espazio horretan, elkarriketak izango dituzte enpresetako liderrekin, eta ikuspegi estrategiko eta dibulgatzaile batetik landuko dituzte enpresetan eta gizartean izaten diren erronka nagusietako batzuk. Hilerokoa izango da, eta helburua da enpresa eztabaidari ekarpenak egitea, nola eta elkarriketa hurbilak, sosegatuak eta arnas luzekoak eginez askotariko sektoreetako zuzendarikide eskarmentudun eta erreferentzialekin.

Ohiko elkarriketa baino gehiago, **Rojo con Rosa**-ren xedea da elkarriketa sakonak egitea enpresetako liderrekin, partekatzea ikaskuntzak eta analizatzea ekonomiaren oraina eta geroa markatzen ari diren eraldaketa handiak; hala, haien ikuspegia emango dute zenbait gairen inguruan, hala nola lidergoa eta pertsonak, berrikuntza, iraunkortasuna, kontsumoa, lehiakortasuna, eragin soziala eta lurraldeen garapen ekonomikoa.

Lehen atalean, **Jose Armando Tellado** izango du gonbidatu, **Central Lechera Asturiana taldeko** zuzendari nagusia. Rosa Carabelek elkarriketa egingo dio, eta zenbait gairen bueltan arituko dira, hala nola gizarteak elikadurarekin duen harremanaz, elikaduraren arloko enpresen eginkizunez, abeltzainez eta balio kateaz, landa munduaz eta belaunaldi aldaketaz, iraunkortasunaz eta lidergo xededunaz. Datozen hilabeteetan, bideopodcastak enpresa munduan erreferente diren beste partaide batzuk izango ditu; horien artean, Iberdrola Espainako CEOa, Vicky Foodseko kontseilari ordezkaria eta Eguren upategietako CEOa.

*"Enpresek asko dugu elkarrengandik ikasteko. Esperientziak partekatuz, ikuspegiak trukatzuz eta garbi hitz eginez, erabaki hobeak har ditzakegu eta enpresa arloko eztabaida aberastu. **Rojo con Rosa**-rekin, asmoa da elkarriketa espazio lasai bat sortzea, erabilgarria izatea eta*

*inspiragarria beste lider batzuentzat; azken batean, enpresa lehiakorrago, berritzaileago eta gizartearekin konprometituagoak eratu nahi dituztenentzat”, azpimarratu du **Rosa Carabelek, EROSKIko CEOak.***

Atal bakoitzak 30 minutu inguru iraungo du, eta eskura egongo da EROSKIren kanal digitaletan, web korporatiboaren atal espezifiko batez lagunduta (<https://corporativo.eroski.es/noticias-eroski/>). Ekimen honekin, kooperatibak indartu egingo du baliozko edukiak sortzeko duen apustua, eta, ezagutzak trukatzuz, ekarpena egingo dio enpresaren munduko erronka handien gaineko eztabaidari.

EROSKiri buruz

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,32ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2025aren amaieran, 1.508 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita optikak, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste jarduera batzuk ere. Horretaz gainera, 6 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 28.200 lagunek baino gehiagok osatzen dute langile taldea; horietatik 8.300, berriz, bazkide eta jabe dira.